



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

UDALBATZARRAK 2018ko UZTAILAREN 3an EGINDAKO OHIKO BILKURAREN AKTA

2018ko uztailaren 3an, Alkizako Udaletxean, arratsaldeko 19.30etan, Jon Umerez Urrezola Alkatearen Lehendakaritzapean behean aipatzen diren zinegotziak bildurik, ondorengo erabakiak hartu ziren :

ALKATEA : Jon Umerez Urrezola

ZINEGOTZIAK : Jose M^a Aranzabe Urruzola
Jose Ramon Hernandez Cristobal
Onintza Gorostidi Murua
Uxue Etxebeste Eizagirre
Xabier Mugika Letamendia

Bere ezin etorria azaltzen du: Koldobika Jauregi Zinkunegi

IDAZKARIA: Ane Gomez Urteaga

Ondorengo gaiak aztertu eta erabaki ziren:

1. Alkatetza ebazpenen berri ematea.
2. Fakturak eta ordainketak
3. 2018-KALD-000001-00 Kreditu aldaketaren hasierako onespena, hala bada
4. Agerre baserrian hainbat lan egiteko obra baimena eskaera, J.R.H.
5. Arritza Berri etxerako sarreraren aldaketarako obra baimena luzapenaren eskaera, X.S.
6. Alkizako Herriguneko seinalizazio lanak egiteko esleipena, hala bada
7. Alkizako Belaka-Sarobe bidean konpontze lan puntualaren esleipena, hala bada
8. Alkizako herrian dauden zenbait berdegune eta parkeen mantenu zerbitzuaren esleipena, hala bada
9. Gaur egungo Datu pertsonalaren tratamenduaren legediari egokitzeko lanen esleipena, hala bada
10. Datu pertsonalen tratamenduen arduradunaren lanen esleipena, hala bada
11. Bake epaile titular eta ordezkioaren izendapenaren onespena, hala bada



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

- 12. Beste batzuk
- 13. Erregu, galdera eta mozioa
.../...

LEHENEN PUNTUA **ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA**

Ondoren aipatzen diren Alkatetza Ebazpenak eman direla adierazi du Udaleko Behin Behineko Idazkari-Kontuhartzaileak, bertaratuak jakinaren gainean geratu direlarik:

30/2018 Alkatetza Ebazpena, ekainaren 1ekoa, M.D.A. andreari SS-1726-BG ibilgailuari behin betiko baja emateagatik, dagokion trakzio mekanikodun zergaren itzulera proportzionala onestea, ebazten duena.

31/2018 Alkatetza Ebazpena, ekainaren 12koa, Beleburupe Guraso Elkarteak eginiko eskaera onestu, hau da, ekainaren 16an Frontoia eta hainbat material erabiltzeko baimena ematea, ebazten duena.

32/2018 Alkatetza Ebazpena, ekainaren 12koa, Beleburupe Guraso Elkarteak eginiko eskaera onestu, hau da, ekainaren 23an San Juan sua Herriko plazan egiteko baimena ematea, ebazten duena.

33/2018 Alkatetza Ebazpena, ekainaren 18koa, I.O. Jaunak eginiko eskaera onestea, hau da, SS0199BK ibilgailuari behin betiko baja emateagatik, dagokion trakzio mekanikodun zergaren itzulera proportzionala onestea, ebazten duena.

34/2018 Alkatetza Ebazpena, ekainaren 18koa, 2018-KALD-000001 kreditu Aldaketaren espediente hasiera onartzea, ebazten duena.

35/2018 Alkatetza Ebazpena, ekainaren 20koa, Alkizako udaleko 2018 urteko lehenengo seihilabeteko zabor tasaren udal errolda onestea, ebazten duena.

36/2018 Alkatetza Ebazpena, ekainaren 22koa, 2018-KALD-000002 kreditu Aldaketaren espediente hasiera onartzea, ebazten duena.

BIGARREN PUNTUA **FAKTURAK ETA ORDAINKETAK**

Ondorengo faktura zerrenda aurkeztu zen:



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

MOVISTAR FIJO	81,83
MOVISTAR FIJO	74,40
AUDAX	138,56
EUSKALTEL	64,80
AUDAX	254,62
CORREOS	10,64
IBERDROLA	55,43
LEFEBRE EL DERECHO	872,89
LEFEBRE EL DERECHO	413,82
CALPARSORO INDUSTRIAL	55,04
AUDAX	470,06
FONTANERIA ANTZIETA	370,38
FONTANERIA ANTZIETA	62,56
EBA ERKIZIA	1.413,44
ARGITU	142,59
ULAHI	547,40
AUDAX	243,57
AUDAX	50,32
AUDAX	40,95
AUDAX	235,77
AUDAX	41,88
AUDAX	128,17
AUDAX	93,97
AUDAX	72,09
AUDAX	27,03
QUISER	237,11
IZADI LABORATEGIA	152,94
BULEGOAK	175,45
IPUI TANTAI	136,13
IDOIA NEVES	70,01
GEMA ARRUGAETA	726,00

ERABAKITZEN DUTE

LEHENA.- Guztira **7.459,85** eurotako kopurua duen faktura zerrendari onespena ematea.



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

HIRUGARREN PUNTUA

2018-KALD-00001-00 KREDITU ALDAKETAREN HASIERAKO ONESPENA, HALA BADA

Udala honen 2018 urteko Aurrekontuari eragiten dion gastuen aurrekontu partiden arteko kreditu gehigarri bidez egin beharreko kreditu aldaketarako espedientearen berri eman da.

Idazkari-kontuhartzaileak egindako txostena irakurri da, zeinak adierazten baitu aipatutako espediente aplikagarria zaion araudiari egokitzen zaiola, zehazki abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzkoa denak 34.1 artikuluan ezarritako beharkizunei egokitzen zaiola.

Eztabaidatu ondoren bototara jarri eta bertaratuek, aho batez honako hau

ERABAKITZEN DUTE

LEHENA.- Proposamenean zerrendatzen diren gastuen kreditu gehigarriaren espedienteari hasierako onespena ematea, Udala honen Aurrekontuari dagokiona, kapitulukako ondoko laburpenaren arabera:

Gastuak eta kreditu aldaketa egiteko proposamena

Gastuen partida	Azalpena	Kredituak		
		Egungoak	Aldaketak	Behin betikoak
1 0000.163.153.40.05 2018	PERTSONALAREN BIZI A. BRIGADA	260,00	40,00	300,00
1 0000.211.164.00.01 2018	hilerriko gastuak	2.000,00	280,00	2.280,00
1 0000.211.933.00.01 2018	herriko ostatua konponketak	2.000,00	500,00	2.500,00
1 0000.212.340.00.01 2018	kirol ekipamenduen mantenimendua	0,00	4.800,00	4.800,00
1 0000.212.153.04.01 2018	makineria instalazio , tresnerien manten	6.500,00	1.500,00	8.000,00
1 0000.220.920.00.02	PRENTSA ALDIZKARI ETA	500,00	500,00	1.000,00



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

2018	BESTE			
1 0000.221.230.00.03 2018	DON JUANENA GASA	1.300,00	500,00	1.800,00
1 0000.221.320.00.03 2018	ESKOLA HAUR ESKOLA GASA	3.000,00	500,00	3.500,00
1 0000.221.330.00.01 2018	KULTUR ETXEKO ARGINDARRA	2.000,00	800,00	2.800,00
1 0000.226.172.00.06 2018	ingurumena babesa iharduera soziokultura	1.000,00	2.000,00	3.000,00
1 0000.369.920.00.01 2018	Finantza gastuak	10,00	30,00	40,00
1 0000.422.943.01.01 2018	TOLOSALDEKO MENDI NEKAZARITZA	2.500,00	30,00	2.530,00
1 0000.422.943.02.01 2018	TOLOSALDEA GARATZEN	5.000,00	400,00	5.400,00
1 0000.626.333.00.01 2018	portatila	622,00	150,00	772,00
1 0000.421.230.00.01 2018	AIZTONDO MANKOMUNITATEA- G.Z	20.000,00	8.648,00	28.648,00
1 0000.421.330.00.01 2018	AIZTONDO MANKOMUNITATEA- KULTURA	10.000,00	4.648,00	14.648,00
1 0000.210.171.00.01 2018	parke eta lorategien mantenimendua	0,00	5.365,00	5.365,00
1 0000.481.340.00.05 2018	tolosaldeko arraun kluba	0,00	188,00	188,00
1 0000.625.153.00.01 2018	alkizako auzo eta baserri bideen seinale	6.900,00	6.871,00	13.771,00
1 0000.643.920.00.01 2018	udal inbentarioa	0,00	7.260,00	7.260,00
1 0000.622.150.00.01 2018	udala	1.000,00	8.500,00	9.500,00
1 0000.622.164.00.01 2018	kanposantuko obrak	0,00	4.170,00	4.170,00
1 0000.120.920.00.01 2018	IDAZKARIAREN SOLDATA	25.000,00	2.000,00	27.000,00



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

1 0000.130.153.40.01 2018	AGUAZILAREN LANSARIA	32.200,00	3.500,00	35.700,00
1 0000.227.493.00.07 2018	datu babeserako legera egokitzapena	0,00	2.700,00	2.700,00
1 0000.480.172.00.01 2018	beka ingurumena	0,00	1.000,00	1.000,00
1 0000.130.172.00.01 2018	INGURUGIROKO TEKNIKARIA	0,00	5.500,00	5.500,00
1 0000.160.323.00.01 2018	gizarte segurantz.a brigada	12.500,00	1.500,00	14.000,00
1 0000.160.920.00.01 2018	gizarte segurantz.a adm. orokorra	31.500,00	1.000,00	32.500,00
GUZTIRA		165.792,00	74.880,00	240.672,00

Kod.	Partida	Azalpena	Zenbatekoa
a	2 0000.870.000.00.01 2018	KREDITU GERAKINA 2017	73.360,00
FINANTZAKETA GUZTIRA			73.360,00

BIGARRENA.- Iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den hurrengo egunetik hasita eta hamabost eguneko epean, espedientea jendaurrean ipintzea edonork egoki dituen erreklamazio zein iradokizunak burutu ditzan. Baldin eta erreklamaziorik egongo ez balitz, espedientea behin betikotzat onartuta geratuko litzateke besterik gabe.

HIRUGARRENA: 2018ko ekainaren 18an egindako Kontuhartzailearen komunikazioa onestea, non azaltzen den:

Toki entitate honek ez ditu betetzen aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren arloetan 2018. urterako ezarritako helburuak edota gastu araua. Likidazioan egoera hori berretsiko balitz, toki entitate hau behartuta legoke plan ekonomikoko finantzarioa onartzera. Aipatutako planak ahalbideratu behar du urteko ekitaldian eta hurrengoan defizitaren helburua eta gastu araua



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

betetzea, eta 2020an zor bizia sarrera arrunten %70 edo txikiagoa izatea. Plan hori Udalbatzari aurkeztu beharko zaio hilabeteko epean, gehiena jota, likidazioaren espedientea onartzen denetik kontatzen hasita; bi hilabeteko epean onartu beharko da, gehiena jota, aurkezten denetik kontatzen hasita; eta martxan jarri beharko da hiru hilabeteko epean, gehiena jota, likidazioaren espedientea onartzen denetik kontatzen hasita.

LAUGARREN PUNTUA

AGERRE BASERRIAN HAINBAT LAN EGITEKO OBRA BAIMENA ESKAERA, J.R.H.

Ikusirik, J.R.H. jaunak eginiko eskaera, non Agerre baserrian hainbat lan egiteko obra baimena eskaera egiten duen.

Ikusirik, Udal Aholkulari Teknikoak, 2018ko ekainaren 29an eginiko txostenean dioena:

ALKIZAKO "AGERRE" BASERRIKO GANBARA EGOKITZEKO ESKAERARI BURUZKO TXOSTENA

JOSE RAMON HERNANDEZ jaunak, Alkizako "Agerre" baserriko ganbara eta fatxadako zenbait bao egokitzeko obra baimena eskatzen du, lanen memoria, argazkiak, aurrekontuak eta ganbarako banaketa berriaren oinplanoa aurkezten dituelarik. Aurreko dokumentazioa ikusirik, **ZERA ADIERAZTEN DUT:**

Aurkeztutako dokumentazioaren arabera, lorategi aldera ematen duen Agerre baserriko ganbararen zatia 3 espazio ezberdinetan egokitu eta fatxadako zenbait bao aldatu nahi dira.

Barne espazioa isolatuko da eta banaketa pareta arinez egingo da. Fatxadari dagokionez, erdiko leihoak jatorrizko itxura berreskuratuko du eta alboko atea murriztuko da, lanen aurrekontua 18.060,84 €-koa izanik (BEZ-a gabe).

Alkizako Hiri Antolaketako Arauen 6º artikularen arabera, egun dauden mota guzietako eraikinen antolaketa eta kanpoaldeko itxuraren aldaketak aurretiazko lizentziari loturik egon behar dira.

Agerre baserria Alkizako erabilera berezirik ez duen lur ez-hiritargarian kokaturik dago. Alkizako arau subsidiarioen arabera baserriak ez du inolako katalogazio edo babes berezirik.

Aurkeztutako barne-banaketa berriak bizigarritasun baldintzak betetzen ditu. Ganbarako erdiko leihoaren irekiera, argiztapenaren gehiagotze bat izanik, Agerre



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

baserriko bizigarritasun baldintzen hobekuntza bat bezala uler daiteke eta eraikinaren jatorrizko kanpo itxura berreskuratzen duenez, lanak baimengarriak direla informatzen dut.

Estetikaren ikuspuntutik, lehen oinako ate berriak, goiko leihoaren ardatzarekin bat egin beharko luke.

*Lanak irauten duten bitartean, legeek ezartzen dituzten arauzko segurtasun neurriak gorde beharko dira.

*Lanak amaitzean, eraipen-hondakinak behar bezala kudeatu izana egiaztatzen duten agiriak aurkeztu beharko dira udaletxean.

Gaia azterturik, Jose Ramon Hernandez, zinegotziaren abstentzioarekin, udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENENGOA.- J.R.H. jaunak eginiko obra baimena eskaera onestea, hau da, Alkizako Agerre baserriko ganbara egokitzeko obra baimena ematea. Betiere, Udal Aholkulari teknikoak eginiko txostenean jartzen duenari baldintzaturik.

BIGARRENA.- Indarrean dauden Ordenantza fiskalen arabera dagokion kitapena onartzea.

HIRUGARRENA.-Erabaki hauen berri interesdunari ematea.

BOSTGARREN PUNTUA

ARRITZA BERRI ETXERAKO SARRERAREN ALDAKETARAKO OBRA BAIMENA LUZAPENAREN ESKAERA, X.S.

Ikusirik A.A. andreak eginiko eskaera, non azaltzen duen Arritza Berri etxerako sarreraren aldaketarako obra baimena eman zitzaiola 2017ko azaroaren 24ean eginiko Udalbatzan.

Ikusirik, oraindik aipaturiko lanak ez direla egiten hasi, lan hauek egiteko baimenaren luzapena eskatzen du.

Gaia aztertu ondoren, bertaratuek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DUTE



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

LEHENGOA.- A.A. andreak eginiko eskaera onestu, hau da Arritza Berri etxerako sarreraren aldaketarako obra baimena 6 hilabetez luzatzeko onespena ematea.

SEIGARREN PUNTUA

ALKIZAKO HERRIGUNEKO SEINALIZAZIO LANAK EGITEKO ESLEIPENA, HALA BADA

Ikusirik Alkizako baserrien seinaleztapenaren lanak 2017 urtean gauzatu zirela.

Ikusirik Alkizako Herrigunean ere seinalizazio lanak egiteko asmoa duela Alkizako Udalak, lan hauekin herri guztiko baserri eta herriguneko etxeak seinalizaturik geldituko direlarik. Horretarako, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ekonomia sustapeneko, Landa inguruneko eta Lurralde Orekako departamentuak, 3.980,33 eurotako diru-laguntza esleitu diola Alkizako Udalari.

Ikusirik, aipaturiko lana egiteko, kontratu txiki bat izanik, aurrekontu bat eskatu zaiola GALEMYS, S.L. enpresari. Bere zenbatekoa 6.870,37 euro delarik.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Alkizako herriguneko seinaleztapenaren lanak egiteko onespena ematea.

BIGARRENA: Alkizako herriguneko seinaleztapenaren lanak egiteko GALEMYS S.L. enpresari esleitzea, 6.870,37 eurotako diru kopuruan.

HIRUGARRENA: Gastua 2018 aurrekontuetako 1 0000.625.153.00.01 partidaren kargura egitea.

LAUGARRENA: Erabaki honen berri GALEMYS S.L. enpresari ematea.

ZAZPIGARREN PUNTUA

ALKIZAKO BELAKA-SAROBE BIDEAN KONPONTZE LAN PUNTUALAREN ESLEIPENA, HALA BADA

Ikusirik Alkizako Belaka eta Sarobe baserrira doazen herri bideetan konpontze lan puntualak egin behar direla, euri jasan handiak daudenean ura bidetik etortzen baita hainbat kalte sortuz.



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

Ikusirik lan hauek egiteko Ostarbi Eraikuntzak eta Zerbitzuari aurrekontu bat eskatu zaiola, kontratu txiki baten aurrean gaudelako. Lanaren kostua 4.052,53 euro direlarik.

Ikusirik Arizmendi baserriaren inguruan hainbat lan egin behar direla, zaborrontziak dauden inguruan, bertan dagoen herri-bidean ur hodia aldatu beharrean aurkitzen da, ur jasa handiak daudenean bertan putzuak sortzen direlako.

Ikusirik lan hauek egiteko Ostarbi Eraikuntzak eta Zerbitzuari aurrekontu bat eskatu zaiola, kontratu txiki baten aurrean gaudelako. Lanaren kostua 2.881,62 euro direlarik.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengo

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Alkizako Belaka-Sarobe baserrietara doan herri bidearen konponketa lan puntualak egiteko onespena ematea.

BIGARRENA: Alkizako Belaka-Sarobe baserrietara doan herri bidean lan puntualak egiteko Ostarbi Eraikuntzak eta Zerbitzua enpresari esleitzea, 4.052,53 eurotako diru kopuruan.

HIRUGARRENA: Alkizako Arizmendi baserriaren inguruan hainbat lan egiteko, onespena ematea.

LAUGARRENA: Alkizako Arizmendi baserriaren inguruan hainbat lan egiteko, Ostarbi Eraikuntzak eta Zerbitzua enpresari esleitzea, 2.881,62 eurotako diru kopuruan.

BOSTGARRENA: Aipaturiko gastuak 2018 aurrekontuetako 1 0000.601.153.20.01 partidaren kargura egitea.

LAUGARRENA: Erabaki honen berri Ostarbi Eraikuntzak eta Zerbitzua enpresari ematea.

ZORTZIGARREN PUNTUA

ALKIZAKO HERRIAN DAUDEN ZENBAIT BERDEGUNE ETA PARKEEN MANTENU ZERBITZUAREN ESLEIPENA, HALA BADA



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

Ikusirik Alkizako herrian dauden zenbait berdegune eta parkeen mantenu zerbitzuak kontratu bidez esleitzeko beharrea agertu dela Alkizako udala, herri langilearen lan zama oso handia delako.

Lan hauek egiteko Iratze Lorezaintza S.L. enpresari aurrekontu bat eskatu zaio, kontratu txiki baten aurrean agertzen garelako.

Gaia eztabaidatu ondoren, bertaratuek, aho batez,

ERABAKITZEN DUTE

LEHENGOA.- Iratze Lorezaintza S.L. enpresari Alkizako herrian dauden zenbait berdegune eta parkeen mantenu zerbitzuak kontratatzeke onespena ematea, urte beteko kontratua izango da eta bere kostua 5.364,83 euro direlarik.

BOSTGARRENA: Aipaturiko gastuak 2018 aurrekontuetako 1 0000.210.171.00.01 partidaren kargura egitea.

LAUGARRENA: Erabaki honen berri Iratze Lorezaintza S.L. enpresari ematea.

BEDERATZIGARREN PUNTUA

GAUR EGUNGO DATU PERTSONALAREN TRATAMENDUAREN LEGEDIARI EGOKITZEKO LANEN ESLEIPENA, HALA BADA

Ikusirik 2018ko maiatzaren 25ean sartu zela indarrean 2016/679 Erregelamendua, 2016ko apirilaren 27koa, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokionez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa, hau da, "Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra".

Ikusirik, Alkizako udalak aipaturiko erregelamendu horretara egokitu egin behar dituela bere jarduerak.

Ikusirik, aipaturiko egokitze lan horiek egiteko aurrekontu bat eskatu dela OSK enpresari, bere kostua 1.300,00euro+ BEZ-a izango delarik.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA.-OSK enpresari, Datuak babesteko erregelamendura egokitzeko lanen esleipena burutzea, bere kostua 1.300,00euro +BEZ-a izango delarik.



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

BIGARRENA.- Aipaturiko gastua onestea, 227.493.00.07 partidaren kargura.

HIRUGARRENA.- Erabaki honen berri OSK enpresari ematea.

HAMARGARREN PUNTUA

DATU PERTSONALAREN TRATAMENDUEN ARDURADUNAREN LANEN ESLEIPENA, HALA BADA

Ikusirik 2018ko maiatzaren 25ean sartu zela indarrean 2016/679 Erregelamendua, 2016ko apirilaren 27koa, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokionez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa, hau da, "Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra".

Ikusirik, aipaturiko erregelamendu horretan, Administrazio publikoei dagokienez, lehentasunezko puntuetako bat dela, Datuak Babesteko Ordezkaritza bat izendatzea. Beraz, zerbitzu hori aurrera eraman eta Ordezkaritza izandatzeko OSK enpresari aurrekontu bat eskatu zaio.

OSK enpresaren aurrekontuaren arabera, zerbitzua 2 edo 3 ordu hilean egin daitekeela jasotzen da, kostua 50,00euro ordua +BEZ izango delarik.

Gaia aztertutik, Udalbatzak honek, aho batez, honakoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA.- OSK enpresari Datuak Babesteko Ordezkaritza lanak egiteko kontratua esleitzea 6 hilabetez. Hilean 2 edo 3 orduko zerbitzu bat eskainiko duelarik, 50,00euro+BEZ-a orduko koste batekin.

BIGARRENA.- Aipaturiko gastua onestea, 227.493.00.07 partidaren kargura.

HIRUGARRENA.- Erabaki honen berri OSK enpresari ematea.

HAMAIKAGARREN PUNTUA

BAKE EPAILE TITULAR ETA ORDEZKOAREN IZENDAPENAREN ONESPENA, HALA BADA



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

Ikusirik 2018 urteko apirilaren 24ean Udalbatzarrak, ospatutako ohiko bilkuran, hartutako akordioz datozen lau urteetarako Alkizako Bake Epailea eta bere ordezkoa hautatzeko deialdi publikoa egitea erabaki zuela.

Ikusirik Alkizako Bake Epailea eta bere ordezkoa hautatzeko deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zela 2018 urteko maiatzaren 30ean eta deialdiari buruzko bandoa banatu zitzaizela Alkizako herritarrei, hamabost lanegunetako epea zabaldu zelarik, 2018 urteko maiatzaren 31tik ekainaren 20era bitartean, biak barne, interesa zutenak Alkizako Udaletxean izena eman zezaten.

Ikusirik epearen barnean ondorengo hiru pertsonak eskaera aurkeztu dutela:

- M.K.M.
- J.G.
- M.A.U.

Ikusirik hiru hautagaiek kargua hartzeko baldintza guztiak betetzen dituztela eta ez dutela Botere Judizialeko Lege Organikoak 102,302, 303 eta 309 artikuluetan, eta Bake Epaileei buruzko ekainaren 7ko 3/1995 Erreglamenduan xedatutako ezgaitasun zein bateraezintasun kausarik.

Ikusirik hiru hautagai daudela baldintza guztiak betetzen dituztenak, Udalbatzak, zozketa egitea erabakitzen duela, ondorengo delarik emaitza:

- Titularra: J.G.
- 1. Ordezkoa: M.A.U.
- 2. Ordezkoa: M.K.M.

Gaia azterturik, Udalbatza honek aho batez ondorengo,

ERABAKITZEN DU

LEHENA.- Datozen lau urteetarako Larraulgo Bake Epaile moduan izendatua izan dadin J.G. andrea proposatzea.

BIGARRENA.- Datozen lau urteetarako Larraulgo Bake Epailearen ordezkoi moduan izendatua izan dadin M.A.U. andrea proposatzea.

HIRUGARRENA.- Interesdunei akordio honen berri eman eta aldi berean akordioa argitaratu Udaletxeko Iragarki Taulan.



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

LAUGARRENA.- Akordio honen berri Euskal Autonomi Erkidegoko Auzitegi Nagusiarri ematea.

HAMABIGARREN PUNTUA **BESTE BATZUK**

Presazko arrazoiak direla eta gai zerrendan ez zeuden ondorengo puntuak aztertzea erabaki dute bertaratuek aho batez.

12.1. ACUERDO DE NO PRORROGAR EL CONTRATO DE SERVICIO DE EXPLOTACION DE HERRI OSTATUA DE ALKIZA A DOÑA MARI CARMEN ECHEVERRIA IRAZOQUI

Visto que por resolución de Alcaldía 2018/09, de fecha 24 de enero de 2018, se procedió a adjudicar a Doña Mari Carmen Echeverria Irazoqui la explotación del servicio público del Herri Ostatua de Alkiza desde el 1 de febrero del 2018 hasta el 31 de julio del 2018.

Visto que la cláusula 3 del contrato administrativo de la explotación del servicio público del Herri Ostatua de Alkiza suscrito en fecha 1 de febrero de 2018 entre el Ayuntamiento de Alkiza y Doña Mari Carmen Echeverria Irazoqui dice lo siguiente:

“El plazo de ejecución de este contrato es de 6 meses, contados desde el día siguiente al de la firma de este contrato. Transcurrido el cual las partes de mutuo acuerdo podrán prorrogarlo por un año más y al término de este por otro plazo de tres años y medio más.”

Visto que el Ayuntamiento de Alkiza no tiene intención de prorrogar el contrato administrativo de la explotación del servicio público del Herri Ostatua de Alkiza a Doña Mari Carmen Echeverria Irazoqui, al vencimiento de este contrato, esto es, 31 de julio de 2018.

Visto que en fecha 20 de junio de 2018, los miembros de la corporación le comunicaron a la Sra. Echeverria su intención de no prorrogar el contrato del Herri Ostatua de Alkiza al vencimiento del mismo.

Debatido el tema, el Pleno de la Corporación, por unanimidad, proceden a realizar el siguiente

ACUERDO

PRIMERO.- No prorrogar el contrato administrativo de la explotación del



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

servicio público del Herri Ostatua de Alkiza a Doña Mari Carmen Echeverria Irazoqui, al vencimiento del mismo (31 de julio de 2018).

SEGUNDO.- Notificar a Doña Mari Carmen Echeverria Irazoqui, que el Ayuntamiento de Alkiza procederá a realizar el inventario de los bienes del Herri Ostatua de Alkiza, el 1 de agosto de 2018 a las 10:00 horas, procediéndose a la entrega de las llaves por parte de la Sra. Echeverria al término del mismo.

HAMAHIRUGARREN PUNTUA
ERREGU, GALDERA ETA MOZIOAK

Ez dira aurkezten.

Eta aztertu beharreko beste gairik ez dagoenez, Lehendakari Jaunak bilkura 21.30 etan amaitutzat eman du eta akta hau jaso da, etorri diren guztiek izenpetu dutena eta Idazkari naizen honek, aztertu denaren benetako adierazgarria dela uste duena.